

Marilar Aleixandre
Alqueidon-eko iratxoa
Itzultzailea: Bego Montorio
Desclée de Brouwer, sail laranja
Bilbo, 2003

Galiziako aho-tradizio berreskuratua

Desclée de Brouwer argitaletxeak joan den urtearen hondarrean umeentzat argitaratutako liburu sortaren baitan denetarik aurki daiteke: hemengo eta kanpoko egileen idazlanak, adin guztietako haurrentzako eskaintza, askotariko gaiak...

Horien guztien artean batek eman digu atentzioa: Marilar Aleixandreren *Alqueidon-eko iratxoa* izenekoak. Galiziar idazle horrek denetarik egin baitu: unibertsitateko irakasle gisa hezkidetzaren inguruko gaiak landu ditu zientzia esperimentaletako bere lanarekin uztartuta, gazteentzako eleberri arrakastatsuak idatzi ditu (euskaraz badugu, esaterako, *Etorkizunik ez* izenekoa –*A banda sen futuro*–, 1999ko Lazarillo saria eskuratu zuena, Unai Elorriagak euskaratua), oraindik orain bisita egin digu abenturetako literaturari buruzko hitzaldi eder bat emateko...

Eta, oraingoan, ume txikientzako ipuin xume batekin badator kigu ere, hori ere beste sari batek bermatuta dator: Rañolas saria. Izenburuak berak adierazten duen bezala, Galiziako iratxoen tradizioa berritzera dator ipuina. Bertan agertzen dira iratxoei buruz izan diren uste gehienak: gauez bizi direla, haserrekoiak direla, zenbatzen ez dakitela, zenbakiren bat ere begitan dutela, eta abar. Hori guztia gaur eguneko umeekin jokatuta eta ikuspuntu moderno batetik begiratuta.

Ipuinak zenbakiekin egiten du jolas baina didaktismo-asmorik gabe; alde horretatik, eta testuaren luzera eta gaiari erreparatuta, lehen zikloko umeentzako oso egokia dela iruditzen zait.

Itzulpena Bego Montorio itzultzaile iaioaren eskutik dator, eta esan behar da lan polita egin duela oro har, eta oso bereziki pasarte errimatuak moldatu eta euskaratzen.

Manu Lopez Gaseni